elika
Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

RASFF TXOSTENA

ANIMALIEN ELIKADURA

ALERTAK ETA JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

- Jakinarazpenen jatorria
- Jakinarazitako arriskuen tipologia
- Tartean diren lehengaiak eta pentsuak
- Eranskina. Laburpen-taula

2025EKO LEHENENGO LAUHILEKOA

JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2025eko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko **91 jakinarazpen** egin dira. Horietatik **17 alertak izan dira, 63 informazio-jakinarazpenak eta 11 mugan egin diren ukapenak.**



Egindako kontrol motari dagokionez, **15 jakinarazpen kontrol ofizialek egin dituzte; 41 enpresako autokontroletan detektatu dira; 23 mugako ikuskapen-postuetan; 9 kontsumitzaileen kexen ondorioz hauteman dira; eta 3 zaintza-programen ondorioz.**



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan, jasotako **91 jakinarazpenetatik 33tan** (% 36), kaltetutako produktuaren jatorria **hirugarren herrialde** bat izan da Hauek dira jakinarazpen gehienetan tartean izan diren hirugarren herrialdeak: India (6), Txina eta Erresuma Batua (5) eta Bielorrusia (3).

Jakinarazpen gehien egin dituzten herrialdeak **Belgika (23), Alemania (14), Polonia (13), Espainia (8), eta Suedia, Lituania eta India (6)** izan dira.

JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Aldi horretan detektatutako arrisku gehienak **mikrobiologikoak (% 55) izan dira, eta ondoren, pestizida-hondakinei buruzkoak (% 10) eta baimendu gabeko substantziei/gehigarriei buruzkoak (% 6).**

Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, salmonellak eragin du jakinarazpen gehien (91 jakinarazpenetatik 44) Salmonella, batik bat, lehengai hauetan detektatu da: soja, koltza, ekilorea, eta hegazti-irina.

TARTEAN DIREN LEHENGAIAK ETA PENTSUAK

Produktuen arabera, **lehengaiei dagozkie jasotako jakinarazpenen % 70, etxeko animalientzako pentsuei % 20, pentsu konposatuei % 9 eta gehigarri eta aurre-nahasketei % 1.**

Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira: **koltza-produktuak (7), txakurrentzako mastekagarriak (7), ekilore-produktuak (6), eta artoa eta arrain-irina (4).**



Eranskina. *RASFFren bidez 2025eko 1. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula*

ARRISKUA	MOTA	KOP.	PRODUKTUA	KOP.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	44	Garia	1	*Salmonella Typhimurium*
			Koltza-opila	1	*Salmonella Livingstone*
			Animalia-proteina prozesatuak	1	*Salmonella schwarzengrund*
			Txakurrentzako heste lehortuak	1	*Salmonella Typhimurium*
			Kitina	1	*Salmonella Typhimurium*
			Animalia-proteina prozesatuak	2	*Salmonella spp*
			Soja-irina	1	*Salmonella spp*
				3	*Salmonella Agona*
			Koltza-irina	5	*Salmonella spp*
			Txakurrentzako mastekagarriak	1	*Salmonella Ohio*
				1	*Salmonella Agona*
			Arrain-irina	2	*Salmonella spp*
				1	*Salmonella Derbi*
			Bildotsaren haragi-irina	1	*Salmonella spp*
			Hegazti-irina	5	*Salmonella spp*
			Ardi-irinaren azpiprodukTua	1	*Salmonella spp*
			Ekilore-hazien opil ekologikoak	2	*Salmonella spp*
			Ekilore-hazien opilak	2	*Salmonella spp*
			Ekilore-pelletak	1	*Salmonella spp*
			Arto-glutena	1	*Salmonella spp*
			Koltza-opila	1	*Salmonella spp*
			Indioilar-bihotzak	1	*Salmonella spp*
			Txakurrentzako mastekagarriak	1	*Salmonella spp*
			Oilo erruleentzako pentsua	1	*Salmonella spp*
			Txerri-belarriak	1	*Salmonella spp*
			Bufalo-irina	1	*Salmonella spp*
			Txakurrentzako janari lehorra	1	*Salmonella spp*
			Indioilar-irin hezurgabetua	1	*Salmonella Stanleyville*
			Zahia	1	*Salmonella Enteritidis*
			Txakurrentzako elikagai izoztuak	1	*Salmonella Diarizonae*
	Enterobakterioak	4	Bufalo-irina	*1*	
			Txakurrentzako mastekagarriak	2	
			Arrain-irina	1	
	Onddoak	2	Txakurrentzako snack-ak	2	

ARRISKUA	MOTA	KOP.	PRODUKTUAK	KOP.

Mikotoxinak	B1 aflatoxina	4	Artoa	2
			Arto-pitarrak	1
			Bildotsentzako pentsu osagarria	1
	T2 eta HT2ren kopuru handia	1	Artatxikia	1
Metal astunak	Kadmioa	2	Linazia	1
			Txerriak gizentzeko pentsu osagarriak	1
	Beruna	1	Pentsuetarako lehengaiak	1
Baimendu gabeko gehigarriak/substantziak	CBD kanabidiol	4	Maskotentzako olioa	3
			Txakurrentzako eta katuentzako pentsua	1
	Baimendu gabeko GEOak	1	Linazia	1
	Permetrinaren presentzia	1	Soja-expellerra	1
Ezpurutasun botanikoak	*Ambrosia spp.*-ren presentzia	3	Artatxiki-haziak	1
			Soja-babak	1
			Ekilore-haziak	1
Pestizida-hondakinak	Klorpirifosa	3	Soja-irina	1
	Klorpirifosa eta bifeniloa	1	Hirusta-haziak	1
	Metil-klorpirifosa eta etofenproxa	1	Gari-produktuak	1
	Isoprotiolanoa	1	Azido palmitikoa	1
	Metamidofosa	1	Melazak	1
	Zenbait pestiziden presentzia	1	Arrozaren poteinak	1
		1	Alpapa organikoa	1
	Pirimifos-metil	1	Basartoa	11
	Antrakinona	1	Alpapa	1
APEak	Hausnarkarien DNAren presentzia	2	Odol-irina	1
			Arrain-irina	1
Beste batzuk	Gorputz arrotzak	1	Zaldientzako pentsu osagarria	1
	Txakurren portaeren aldaketa akutuak	1	Txakurrentzako mastekagarriak	1
	Botulismoa	1	Patata-zuntza	1
	Ez da kontrol ofizialik egin	3	Txakurrentzako mastekagarriak	2
			Maskotentzako elikagaiak	1

	Metal zorroztuko zatiak	2	Maskotentzako janari-lata	2
	Paenibacillus-aren larbak antzeman dira	1	Erleentzako pentsua	1
	EDTAren presentzia	1	Txerrientzako pentsua	1
	Metalezko pieza	1	Zaldientzako pentsua	1
	Kontrol gutxi egin dira	1	Txakurrentzako gailetak	1